

SENTIMENDUAK ETA IMPRESIOAK

Ibán ESCUDERO IGOA
izarro_ihabar@yahoo.es

MAITASUNA

*Konturatzen zara berriro ere
izarren argi disdiratsuen antzera,
nigandik aldenduko zarela,
eta haiek bezala eztanda eginten duzunean
neoizko zeruan ikusten dudala
zure marrubizko aurpegia,
nirea ere argituz.*

*Esan nahi nizuke
zure inperfekzioak direla
gustokoen ditudanak
eta badakizu batzuetan
akorde garratza garela,
maitasunezko abesti honetan.*

*Maitasuna hain goxoa balitz,
spray fosforitoz erreko nituzke
nire auzoko karrika guztiak,
zure izena margotuz.*

*Zure aitaren etxe sorginduraino
Ailegatuko litzatekeen sutea.*

LIKIDOA

*Askatuko nituzke
bihotz barrunbean gordetzen ditugun
ezinegon itogarriak,
ixiltasun maltzurak...
sentimendurik gabeko begiradak direlako,
laban zorrotzak balira,
pixkanaka ahultzen gaituenak.*

*Gizarte likido honetan
hauskorrak bihurtu gara,
itotzen den errefusiatuekin hornitu baitugu
gure urrezko etxea,
gure normaltasunaren zerga delako
besteen dardar izua.*

*Egunen batean konturatuko gara,
salbatuko gaituen txerto bakarra,
falta zaigun azken iraultza dela:
elkartasuna.*

*Bitartean...
haize freskoa aurpegian jotzen dit,
ez dago zoriontasun ederragorik.* **PRE
GON**

